

## **Declaración sobre los derechos de las personas pertenecientes a minorías nacionales o étnicas, religiosas y lingüísticas**

Aprobada por la Asamblea General en su resolución 47/135 del 18 de diciembre de 1992

### **La Asamblea General,**

Reafirmando que uno de los propósitos básicos de las Naciones Unidas, proclamados en la Carta, es el desarrollo y el estímulo del respeto de los derechos humanos y las libertades fundamentales de todos, sin hacer distinción por motivos de raza, sexo, idioma o religión,

Reafirmando la fe en los derechos humanos fundamentales, en la dignidad y el valor de la persona humana, en la igualdad de derechos de hombres y mujeres y de las naciones grandes y pequeñas,

Deseando promover la realización de los principios enunciados en la Carta, la Declaración Universal de Derechos Humanos, la Convención para la Prevención y la Sanción del Delito de Genocidio, la Convención Internacional sobre la Eliminación de todas las Formas de Discriminación Racial, el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, la Declaración sobre la eliminación de todas las formas de intolerancia y discriminación fundadas en la religión o las convicciones y la Convención sobre los Derechos del Niño, así como en otros instrumentos internacionales pertinentes aprobados a nivel mundial o regional y los celebrados entre distintos Estados Miembros de las Naciones Unidas,

Inspirada en las disposiciones del artículo 27 del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos relativas a los derechos de las personas pertenecientes a minorías étnicas, religiosas o lingüísticas,

Considerando que la promoción y protección de los derechos de las personas

## **Gutxiengo nazional edo etniko, erlijio eta hizkuntza gutxiengoen partaide diren pertsonen eskubideei buruzko Adierazpena**

Biltzar Orokorrak onetsia, 1992ko abenduaren 18ko 47/135 ebazpenean

### **Biltzar Orokorrak,**

Berretsiz Nazio Batuen Gutunean aldarrikatutako oinarritzko asmoetako bat dela guztien giza eskubideak eta oinarritzko askatasunen errespetua garatzea eta suspertzea, inolako bereizketarik gabe arraza-, sexu-, hizkuntza- edota erlijio-arrazoiengatik,

Berretsiz bere ustea oinarritzko giza eskubideetan, gizakien duintasun eta balioan, gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasunean eta nazio handi eta txikietan,

Asmoa izanik halakoetan adierazitako printzipioen egikaritzea sustatzea, hala nola, Gutunean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Genozidio-delituaren prebenitu eta zehatzeko Konbentzioan, Arraza-bereizkeria modu guztiak ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioan, Eskubide zibil eta politikoen Nazioarteko Itunean, Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Itunean, erlijio edo sinesmenetan oinarritutako intolerantzia eta bereizkeria modu guztiak ezabatzeari buruzko Adierazpena eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan, bai eta nazioarteko bestelako instrumentu egokietan, mundu- edo erregio-mailan onetsitakoetan eta Nazio Batuen estatu kide desberdinen artean egindakoetan,

Oinarri hartuta etnia, erlijio eta hizkuntza gutxiengoen partaide diren pertsonen eskubideei buruzko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 27. artikulua xedapenak,

Kontuan harturik gutxiengo nazional edo etniko, erlijio edo hizkuntza gutxiengoen

pertenecientes a minorías nacionales o étnicas, religiosas y lingüísticas contribuyen a la estabilidad política y social de los Estados en que viven,

Subrayando que la promoción y la realización constantes de los derechos de las personas pertenecientes a minorías nacionales o étnicas, religiosas y lingüísticas, como parte integrante del desarrollo de la sociedad en su conjunto y dentro de un marco democrático basado en el imperio de la ley, contribuirían al robustecimiento de la amistad y de la cooperación entre los pueblos y los Estados,

Considerando que las Naciones Unidas tienen un importante papel que desempeñar en lo que respecta a la protección de las minorías,

Teniendo presente la labor realizada hasta la fecha dentro del sistema de las Naciones Unidas, en particular por la Comisión de Derechos Humanos y la Subcomisión de Prevención de Discriminaciones y Protección de las Minorías, así como por los órganos establecidos de conformidad con los Pactos Internacionales de Derechos Humanos y otros instrumentos internacionales pertinentes sobre derechos humanos, en cuanto a la promoción y protección de los derechos de las personas pertenecientes a minorías nacionales o étnicas, religiosas y lingüísticas,

Teniendo en cuenta la importante labor que realizan las organizaciones intergubernamentales y no gubernamentales en lo que respecta a la protección de las minorías y la promoción y la protección de los derechos de las personas pertenecientes a minorías nacionales o étnicas, religiosas y lingüísticas,

Reconociendo la necesidad de lograr una aplicación aún más eficiente de los instrumentos internacionales sobre derechos humanos en lo que respecta a los derechos de las personas pertenecientes a minorías nacionales o étnicas, religiosas y lingüísticas,

Proclama la presente Declaración sobre los

partaide diren pertsonen eskubideak sustatzea eta babestea lagungarri direla pertsona horiek zein estatutan bizi eta estatu horien egonkortasun politiko eta sozialerako,

Azpimarratuz gutxiengo nazional edo etniko, erlijio edo hizkuntza gutxiengoen partaide diren pertsonen eskubideak etengabe sustatzea eta gauzatzea lagungarri izango lirakeela herrien eta estatuen arteko adiskidetasuna eta lankidetzaren indartzeko, pertsona horiek gizarte osoaren garapenaren zati osagarri diren heinean, legearen agintean oinarritutako marko demokratikoaren barruan.

Kontuan harturik Nazio Batuek duten egin beharreko zeregin garrantzitsua, gutxiengoak babesteari dagokionez,

Kontuan izanik Nazio Batuen sistemaren barruan gaur arte egindako lana, bereziki, Giza Eskubideen Batzordeak eta Bereizkeriak prebenitzeko, eta Gutxiengoak babesteko Azpibatzen Batzordeak egindakoa, bai eta Giza Eskubideen Nazioarteko Itunen arabera ezarritako organoek eta giza eskubideei buruzko beste nazioarteko instrumentu egokiek egindakoa, gutxiengo nazional edo etniko, erlijio edo hizkuntza gutxiengoen partaide diren pertsonen eskubideak sustatzeari eta babesteari dagokienez,

Kontuan harturik zein garrantzitsu den gobernuen arteko nahiz gobernuen kanpoko erakundeek egindako lana, gutxiengoak babesteari eta gutxiengo nazional edo etniko, erlijio edo hizkuntza gutxiengoen partaide diren pertsonen eskubideak sustatzeari eta babesteari dagokienez,

Aitortuz giza eskubideei buruzko nazioarteko instrumentuen aplikazio eraginkorragoa lortzeko beharrezkoa, gutxiengo nazional edo etniko, erlijio edo hizkuntza gutxiengoen partaide diren pertsonen eskubideak sustatzeari eta babesteari dagokienez,

Gutxiengo nazional edo etniko, erlijio eta

derechos de las personas pertenecientes a minorías nacionales o étnicas, religiosas y lingüísticas,

### **Artículo 1**

1. Los Estados protegerán la existencia y la identidad nacional o étnica, cultural, religiosa y lingüística de las minorías dentro de sus territorios respectivos y fomentarán las condiciones para la promoción de esa identidad.

2. Los Estados adoptarán medidas apropiadas, legislativas y de otro tipo, para lograr esos objetivos.

### **Artículo 2**

1. Las personas pertenecientes a minorías nacionales o étnicas, religiosas y lingüísticas (en lo sucesivo denominadas personas pertenecientes a minorías) tendrán derecho a disfrutar de su propia cultura, a profesar y practicar su propia religión, y a utilizar su propio idioma, en privado y en público, libremente y sin injerencia ni discriminación de ningún tipo.

2. Las personas pertenecientes a minorías tendrán el derecho de participar efectivamente en la vida cultural, religiosa, social, económica y pública.

3. Las personas pertenecientes a minorías tendrán el derecho de participar efectivamente en las decisiones que se adopten a nivel nacional y, cuando proceda, a nivel regional respecto de la minoría a la que pertenezcan o de las regiones en que vivan, de toda manera que no sea incompatible con la legislación nacional.

4. Las personas pertenecientes a minorías tendrán el derecho de establecer y mantener sus propias asociaciones.

5. Las personas pertenecientes a minorías tendrán derecho a establecer y mantener, sin discriminación de ninguno tipo, contactos libres y pacíficos con otros miembros de su grupo y con personas pertenecientes a otras minorías, así como contactos transfronterizos con ciudadanos de otros Estados con los que estén relacionados por vínculos nacionales o étnicos, religiosos o lingüísticos.

### **Artículo 3**

hizkuntza gutxiengoen partaide diren pertsonen eskubideei buruzko Adierazpen hau aldarrikatzen du,

### **1. artikulua**

1. Estatuek gutxiengoen nazio- edo etnia-, kultura-, erlijio- eta hizkuntza-izaera eta nortasuna babestuko dituzte, euri dagozkien lurraldeen barruan eta, oro har, nortasun hori sustatzeko baldintzak indartuko dituzte.

2. Estatuek neurri egokiak, legegintzazkoak eta bestelakoak, hartuko dituzte helburu horiek lortzeko.

### **2. artikulua**

1. Gutxiengo nazional edo etniko, erlijio eta hizkuntza gutxiengoen partaide diren pertsonak (aurrerantzean gutxiengoen partaide diren pertsonak) eskubidea izango dute euren kultura izateko, euren erlijioa izateko eta praktikatzeko, euren hizkuntza erabiltzeko, era pribatuan zein publikoan, askatasun osoz, inoren esku-sartzerik gabe eta inolako bereizkeriarik gabe.

2. Gutxiengoen partaide diren pertsonak eskubidea dute modu eraginkorrean parte hartzeko kultura-, erlijio-, gizarte- eta ekonomia-bizitzan nahiz bizitza publikoan.

3. Gutxiengoen partaide diren pertsonak eskubidea izango dute modu eraginkorrean parte hartzeko nazio-mailan hartzen diren erabakietan eta, hala denean, erregio-mailan ere, zein izan gutxiengo hori eta horri dagokionez edota zein erregiotan bizi eta horiei dagokienez, betiere, eskubide hori bateraezina ez bada nazio-legeriarekin.

4. Gutxiengoen partaide diren pertsonak eskubidea izango dute euren elkarteak ezartzeko eta horiei eusteko.

5. Gutxiengoen partaide diren pertsonak eskubidea izango dute, inolako bereizkeriarik gabe, euren taldeko beste kideekin eta beste gutxiengoen pertsonekin harreman askeak eta baketsuak izateko eta horiei eusteko, bai eta mugaz bestaldeko harremanak izateko beste estatuetakoa herritarrekin, horiekin zer ikusia dutenean nazio- edo etnia-, erlijio- edo hizkuntza-loturak direla bide.

### **3. artikulua**

1. Las personas pertenecientes a minorías podrán ejercer sus derechos, incluidos los que se enuncian en la presente Declaración, individualmente así como en comunidad con los demás miembros de su grupo, sin discriminación alguna.

2. Las personas pertenecientes a minorías no sufrirán ninguna desventaja como resultado del ejercicio o de la falta de ejercicio de los derechos enunciados en la presente Declaración.

#### **Artículo 4**

1. Los Estados adoptarán las medidas necesarias para garantizar que las personas pertenecientes a minorías puedan ejercer plena y eficazmente todos sus derechos humanos y libertades fundamentales sin discriminación alguna y en plena igualdad ante la ley.

2. Los Estados adoptarán medidas para crear condiciones favorables a fin de que las personas pertenecientes a minorías puedan expresar sus características y desarrollar su cultura, idioma, religión, tradiciones y costumbres, salvo en los casos en que determinadas prácticas violen la legislación nacional y sean contrarias a las normas internacionales.

3. Los Estados deberán adoptar medidas apropiadas de modo que, siempre que sea posible, las personas pertenecientes a minorías puedan tener oportunidades adecuadas de aprender su idioma materno o de recibir instrucción en su idioma materno.

4. Los Estados deberán adoptar, cuando sea apropiado, medidas en la esfera de la educación, a fin de promover el conocimiento de la historia, las tradiciones, el idioma y la cultura de las minorías que existen en su territorio. Las personas pertenecientes a minorías deberán tener oportunidades adecuadas de adquirir conocimientos sobre la sociedad en su conjunto.

5. Los Estados deberán examinar medidas apropiadas de modo que las personas pertenecientes a minorías puedan participar plenamente en el progreso y el desarrollo económicos de su país.

1. Gutxiengoen partaide diren pertsonen euren eskubideak egikaritu ditzakete, Adierazpen honetan adierazitakoak barne, banaka zein erkidego gisa, taldeko gainontzeko kideekin batera eta inolako bereizkeriarik gabe.

2. Gutxiengoen partaide diren pertsonen ez dute inolako desabantailarik pairatuko Adierazpen honetan adierazitako eskubideak egikaritzeagatik edota egikaritu ezagatik.

#### **4. artikulua**

1. Estatuek beharrezko neurriak hartuko dituzte bermatzeko zer eta, gutxiengoen partaide diren pertsonen egikari ditzaten oso-osorik eta modu eraginkorrean euren giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak, inolako bereizkeriarik gabe eta legearen aurrean, maila berean.

2. Estatuek neurriak hartuko dituzte baldintza onuragarriak sortzeko zertarako eta, gutxiengoen partaide diren pertsonen adierazi ditzaten euren ezaugarriak eta garatu ditzaten euren kultura, hizkuntza, erlijio, tradizio eta ohiturak, salbu eta eginera zehatz batzuek nazio-legeria urratzen dutenean edota halakoak nazioarteko arauen aurkakoak direnean.

3. Estatuek neurri egokiak hartu beharko dituzte gutxiengoen partaide diren pertsonen izan ditzaten, ahal den guztietan, aukera egokiak, euren ama hizkuntza ikasteko edo ama hizkuntzan heziketa jasotzeko.

4. Estatuek, halakoa egokia denean, neurriak hartuko dituzte hezkuntza-esparruan, euren lurraldean dauden gutxiengoen historia, tradizioak, hizkuntza eta kulturaren ezaguera sustatzeko. Gutxiengoen partaide diren pertsonen aukera egokiak izan beharko dituzte, gizarteari buruzko ezaguera orokorrak eskuratzeko.

5. Estatuek neurri egokiak azertu beharko dituzte, gutxiengoen partaide diren pertsonen bete-betean parte har dezaten herrialdearen aurrerapen eta garapen ekonomikoan.

## **Artículo 5**

1. Las políticas y programas nacionales se planificarán y ejecutarán teniendo debidamente en cuenta los intereses legítimos de las personas pertenecientes a minorías.

2. Los programas de cooperación y asistencia entre Estados deberán planificarse y ejecutarse teniendo debidamente en cuenta los intereses legítimos de las personas pertenecientes a minorías.

## **Artículo 6**

Los Estados deberán cooperar en las cuestiones relativas a las personas pertenecientes a minorías, entre otras cosas, el intercambio de información y de experiencia, con el fin de promover la comprensión y la confianza mutuas.

## **Artículo 7**

Los Estados deberán cooperar a fin de promover el respeto por los derechos enunciados en la presente Declaración.

## **Artículo 8**

1. Ninguna de las disposiciones de la presente Declaración impedirá el cumplimiento de las obligaciones internacionales de los Estados en relación con las personas pertenecientes a minorías. En particular, los Estados cumplirán de buena fe las obligaciones y los compromisos contraídos en virtud de los tratados y acuerdos internacionales en que sean partes.

2. El ejercicio de los derechos enunciados en la presente Declaración se entenderá sin perjuicio del disfrute por todas las personas de los derechos humanos y las libertades fundamentales reconocidos universalmente.

3. Las medidas adoptadas por los Estados a fin de garantizar el disfrute efectivo de los derechos enunciados en la presente Declaración no deberán ser consideradas prima facie contrarias al principio de igualdad enunciado en la Declaración Universal de Derechos Humanos.

## **Artículo 9**

Los organismos especializados y demás

## **5. artikulua**

1. Nazio-politikak eta -programak planifikatu eta gauzatzeko, aintzat hartuko dira gutxiengoen partaide diren pertsonen interes legitimoak.

2. Estatu en arteko lankidetzak eta laguntza-programak planifikatzeko eta gauzatzeko aintzat hartuko dira gutxiengoen partaide diren pertsonen interes legitimoak.

## **6. artikulua**

Estatuak lankidetzan aritu beharko dira gutxiengoen partaide diren pertsonen buruzko kontuetan, besteak beste, informazioa eta esperientzia trukaketan, bata bestearekiko elkar-ulertze eta konfiantza sustatzeko.

## **7. artikulua**

Estatuak lankidetzan aritu beharko dira Adierazpen honetan aipatu eskubideekiko errespetua sustatzeko.

## **8. artikulua**

1. Adierazpen honen xedapenek ez dute eragotziko estatuak nazioarteko betebeharrak betetzea, gutxiengoen partaide diren pertsonen dagokienez. Batik bat, estatuak uste onez beteko dituzte, eurok zein nazioarteko tratatu eta akordioetan alderdi izan eta tratatu eta akordio horien arabera hartutako betebeharrak eta konpromisoak.

2. Adierazpen honetan aipatu eskubideen egikaritzea ulertuko da mundu osoan aitortuak diren eta pertsona guztiei dagozkien giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak gozatzeko aukerari kalterik egin gabe.

3. Estatuak, Adierazpen honetan aipatu eskubideak modu eraginkorrean goza daitezkeen bermatzeko ezarri dituzten neurriak ez dira hartuko, prima facie, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean adierazitako berdintasun-printzipioaren aurkakoak balira legez.

## **9. artikulua**

Erakunde espezializatuek eta Nazio

organizaciones del sistema de las Naciones Unidas contribuirán a la plena realización de los derechos y principios enunciados en la presente Declaración, en sus respectivas esferas de competencia.

Batuen sistemaren gainontzeko erakundeek lagunduko dute Adierazpen honetan aipatu eskubide eta printzipioak oso-osorik gauzaten, euren eskumenen arloan.